


2003. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen superabita BPGaren %2,9 izan zen

Estatuko administrazioak 1.565 milioi euroko superabita izan zuen; euskal administrazioek, aldiz, 147 milioiko defizita

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden herri administrazioek (euskal administrazioak eta EAEn kokatuta dauden Estatuko administrazioak eta Gizarte Segurantzak) BPGaren %2,9ko aurrekontuko superabita izan zuten 2003. urtean, EUSTATEN datuen arabera. Alabaina, 2000tik 2003rako aldian ratio hori murrizten joan zen: 2000. urtean %5,7koa izan zen eta 2003an %2,9koa.

Datu horiek Estatukoekin eta Europar Batasunekoekin alderatuz gero ibilbide ezberdinak ematen direla ikusiko da. Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek, oro har, aldi guzti horretan superabita izan zuten baina beheranzko joerarekin. Estatu osoko herri administrazioak, ordea, 2003. urtean lortu zuten zero defizitera hurbiltzen joan ziren pixkanaka. 25 kideko Europak, alabaina, aurrekoaren alderantzizko ibilbidea izan zuen, urtez urte zero defizitetik urruntzen joan zelako eta 2003. urtean BPGaren %3,0ko defizita izan zuelako.

1. grafikoa: Herri administrazioen finantzatzeko ahalmenaren (+) edo beharizanaren (-) bilakaera (BPGaren %)



Iturria: Eustat

EAEn kokatuta dauden Estatuko administrazioak eta Gizarte Segurantzak 2003. urtean superabita izan zuten; euskal administrazioek, aldiz, defizita izan zuten

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako erakunde guztien finantzatzeko ahalmenak funtsean ezberdinak izan ziren 2003. urtean. EAEn kokatuta dagoen Estatuko administrazioak 1.110 milioi euroko superabita izan zuen finantzazkoak ez diren erabileren gaineko finantzazkoak ez diren baliabideetan, eta baliabide gehienak Euskadik Estatuari ordaindutako Kupokoak izan ziren. EAEn kokatuta dagoen Gizarte Segurantzak ere izan zuen superabita, 455 milioikoa alegia. Hots, 2003. urtean, Estatuaren eskumenekoak diren bi herri administrazioek batera eta finantzatzeko ahalmenari dagokionez 1.565 milioi euroko superabita izan zuten Euskal Autonomia Erkidegoan; kopuru hori bere BPGaren %3,2 izan zen.

1. taula: Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantzatzeko ahalmena (+) edo beharrezana (-). Mila eurotan. 2003. urtea

	1.- Finantzazkoak ez diren baliabideak	2.- Finantzazkoak ez diren erabilerak	3.- Aurrezki garbia	4.- Finantzatzeko ahal.(+) eta beh.(-)
Herri administrazioak	18.015.091	16.596.788	3.078.408	1.418.303
EAEn dauden Estatuko administrazioa+Gizarte Segurantzak	8.103.553	6.538.341	1.737.074	1.565.212
EAEn dagoen Estatuko administrazioa	2.222.553	1.112.089	1.240.560	1.110.464
EAEn dagoen Gizarte Segurantzak	6.010.948	5.556.200	496.514	454.748
Herri administrazioak (*)	11.299.215	11.446.124	1.341.335	-146.909
Eusko Jaurlaritzak	6.436.623	6.491.096	527.328	-54.473
Araba	1.808.572	1.846.024	84.373	-37.452
Bizkaia	5.585.542	5.658.097	346.855	-72.555
Gipuzkoa	3.691.217	3.673.646	382.779	17.571

(*) Eusko Jaurlaritzaren barruan honakoak sartzen dira: adm. erak. autonomoak, EHU, Osakidetza eta sozietate publiko batzuk

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren barruan honakoak sartzen dira: foru aldundiak eta horien adm. erak. autonomoak eta sozietate publiko batzuk; eta Toki erakundeak

Iturria: Eustat

Aitzitik, euskal administrazioek 147 milioi euroko defizita izan zuten finantzazkoak ez diren baliabideen eta gastuen artean; kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoaren BPGaren %0,3 izan zen. Finantzatzeko beharrezana honelaxe banatzen da: Eusko Jaurlaritzak 54 milioiko defizita izan zuen, Arabako foru eta udal administrazioek 37 milioikoa eta Bizkaikoek 73 milioikoa; aitzitik Gipuzkoako foru eta udal administrazioek 18 milioi euroko superabita izan zuen 2003. urtean.

2000-2003 aldian Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek oro har %14,0 gehitu zituzten finantza-baliabideak, eta erabilerak (gastuak) %24,0; ondorioz, administrazio horien finantzatzeko ahalmena 2.404 milioi eurotik (2000. urtean) 1.418 milioira (2003. urtean) murriztu zen.

Euskal administrazioen finantzazkoak ez diren baliabideak hiru urtetan %13,1 gehitu ziren; erabilerak (gastuak), ordea, %23,5 gehitu ziren. 2000. urteko finantzatzeko ahalmena 721 milioi eurokoa izan zen eta 2003. urtean horren ordean 147 milioi euroko defizita izan zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazio guztien aurrezki garbia %18,8 murriztu da aipatu aldian: 2000.urtean 3.793 milioi eurokoa izan zen eta 2003. urtean 3.078 milioikoa. Hala ere, murrizketa handiena 2001. urtean eman zen (%-21); 2002 eta 2003. urteetan murrizketa hori moteldu egin zen: 2002. urtean %1eko murrizketa eman zen eta 2003an %7koa.

Euskal administrazioen eta Estatuko eskumenekoa den herri administrazioaren arteko aldeak, orduan, ugariak dira berriz. Euskal administrazioen aurrezki garbia aldi horretan %28,3 murriztu zen; Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen Estatuaren eskumeneko herri administrazioaren aurrezki garbia soilik murriztu zen %9,6.

**2. taula: Herri administrazioek azken eskarian duten partaidetza.
Euskal Autonomia Erkidegoa (mila eurotan). 2000-2003**

	2000	%	2001	%	2002	%	2003	%
Azken kontsumoko gastua	30.489.986	100,0	32.594.367	100,0	34.372.086	100,0	36.867.075	100,0
Herri adm.en azken kontsum. gastua	5.866.817	19,2	6.574.732	20,2	6.963.085	20,3	7.551.277	20,5

Kapital-eraketa gordina	10.468.359	100,0	11.200.922	100,0	12.218.713	100,0	13.416.770	100,0
Herri adm.en kapital-eraketa gordina	1.227.090	11,7	1.327.166	11,8	1.437.383	11,8	1.508.409	11,2

Barne-eskaria	41.407.486	100,0	44.325.790	100,0	47.009.893	100,0	50.497.871	100,0
Barne-eskari publikoa	7.093.907	17,1	7.901.898	17,8	8.400.468	17,9	9.059.686	17,9

Iturria: Eustat

2003. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-eskari publikoa barne-eskari osoaren %17,9 izan zen, hau da, 2000. urtean baino zortzi hamarren handiagoa; hori gorabehera, 2001. urtetik aurrera aldaketarik gabe mantendu zen.

2003. urtean, herri administrazioen azken kontsumoko gastua Euskal Autonomia Erkidegoko azken kontsumoko gastu osoaren %20,5era gehitu zen, hau da, 2000. urtean baino puntu bat eta hiru hamarren gehiago. Aldi osoa aintzat hartua gehikuntzarik garrantzitsuen 2001. urtean eman zen (portzentaje-puntu bat); hurrengo urteetan, aitzitik, gehikuntza hori moteltzen joan zen.

Herri administrazioek Euskal Autonomia Erkidegoan egin zituzten inbertsioak aldi horretan zehar gutxitzen joan ziren. Aztertu den aldi horretako lehenengo hiru ekitaldietan zehar, herri administrazioek Euskal Autonomia erkidegoko ekonomiaren kapital-eraketa gordinen izan zuen partaidetzaren ehunekoak ia ez zuen aldaketarik izan, baina 2003. urtean ehuneko hori puntu erdi murriztu zen.

Oharra: informazio gehiago nahiz izanez gero, ikusi ohar metodologikoa.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Clara Ramos Hernández

Tel:+34-945-01 75 97 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp